

HAU PELIKULETAN BEZALA DA!

Xaguxar

Arduradunak telefonoz pare bat aldiz galdetu zidan ea Cine Reina ziur non zen ba ote nekien. Ez ote nuen nahasten beste taberna batekin... Ezetz, ezetz, ez nuela nahasten... Zine zaharra bota bait zuen eta haren tokian, ba, Sala Reina... Baietz, baietz, aurkituko nuela.

Hitzaldi bat eman behar nuen hondakinen trataerari buruz. Klaseak eta hitzaldiak ziren orain nere ogibidea. Eguna etorri eta haruntz abiatu nintzen, paperez, txostenez eta diapositibaz armaturik. Arratsalde sargoria zen, arratsalde astuna, non udaberria udarekin leihan dabilela dirudi. Haurrak lehenengo helatuaren eske, gazte kuadrilak harroturik, edadeko jendea paseatu nahian, tabernetako terrazak beterik... Zakur bat, nobio batzuk, haur txiki bat erortzeaz, txirrindulari despistatu xamar bat...

Autoa urruti xamar utzi eta kale Biteri aldera. Segituan topatzen dut aretoa. Goizegi da eta "Huachafita"-rekin ezagutu nuen tabernaren bila hasten naiz. Hura ere desagertu da. Oso

taberna berezia iruditu zitzaidan garai haietan. Pareta batetan marrazki bukoliko xamar bat zeukaten, hau da, mendiak, baserriak, ardiak larrean... Ai Euskalerrri nerea! Taxisten paradan frente frentean zegoenez gero, hantxe biltzen ziren taxista guztiak kartetan aritzeko. Behintzat Huachafitarekin gelditu nintzen egun hartan, han topatu nituen -jokuan, baina adi-, puroa ahoan zutela. Bati lana sortzean, azkar asko alde egiten zuen eta baita azkar ere ordurarte begiratzen egondako batek haren jokua jarraitu.

Taberna haren ordeaz, beste bat dago, guztiz berritua. Ez dago ez ke usairik, ez taxista kuadrilarik kartetan, ez "Garoa"-tik ateratako irudi bukolikorik. Bestalde, aitortu behar, ez dagoela ere Huachafita. Garagardo bat eskatzen dut eta kanpoan, zuhaitzen azpian, jartzen naiz. Ez nuke babosoa izan nahi, bainan Huachafita oso jatorra zen... Oso, oso... Oso jatorra, oso moñoña, oso azkarra... Neretzako jatorrena, moñoñena, azkarrena eta abar...



Gutziz maitemindua nengoen. Dena den "gogorrarena" egin behar zen eta... Garai haietan, 68 pasa berria, ez zen tradizionala izan behar, iraultzailea baizik. Ez zen egokia "nobio" hitza erabiltzea. Huachafita eta biok "irten" egiten ginen, kuadrilan ibiltzen ginen, jaialdi guzti-guztitara joaten ginen, liburuak pasatzen genizkion elkarri... Liburu batetik, hain zuzen, atera genion Josebak eta biok Huachafita ezizena. Mario Vargas Llosaren "Conversación en la Catedral" liburuan, azaltzen da, Peru aldean "huachafo" gusto txarreko norbaiti, oso arrunta den norbaiti... esaten zaiola. Jeneralean, indioei, "cholo" direnei, esaten zaie. Hau da: "Klase-dominatzailearen-eredu-estetikoak-batere-menderatuak-ez-dituen-norbait-edota-proporzio-desegokian-erabiltzen-dituen". Beraz, adjetibo guztiz burgesa eta ofentsiboa eta iraultza garaile gertatzean atzera botako gendukeena, "manchurriano", "pied noir" eta antzekoekin batera.

Guzti hau ondo ulertzeko, kontutan hartu behar da, gu nahiko "iraultzazale" ginela garai haietan. Ezizena maitekiro erabiltzen genuen. Huachafitarekin ez ginen estetikoki ados jartzen: guri Vargas Llosa gustatzen zitzaigun, berari gehiago García Márquez; guk "Ciudadano Kane" miresten genuen, berak "Hirugarren gizona"; guk "Potemkin akorazatua" ikustera eramaten genuen eta gero, bera bakarrik, joaten zen "Zhivago doktorea" ikustera. Guk James Dean bezala izan nahi genuen -nahiz eta aitortu ez- berak Bogartetik zerbait har genezan nahi omen zuen.

Bainan maite nuen, nahiz eta Huachafita deitu, maite nuen ni baino prestuago zelako, bete-betean bizi zelako, beti liburuak erosteko dirua lortzen zuelako, alaia eta adoretua zelako. Maite nuen. Errez eman nion baietza Errenteriara etortzeko plana esan zidanean. Errenteriako zine batean botatzen omen zen "Ryan-en alaba"; berak zionez, filma guztiz ederra, zoragarria, sakona eta "mentsai" haundikoa... Batez ere hori behar genuen, "mentsai" haundiko filmeak...

Berak esan zidan orain nagoen taberna honetan itxoin behar niola. Edarien promozioak ere egiten zituen gure Huachafitak eta taberna hau ezagutzen zuen. Itxoiteko han, segituan etorriko zela bera... Ez zen segituan etorri, beti bezala... Korrika eta muturka, bainan berandu... Sarrerak juxtu-juxtu atera genituen.

Ez ziren numeratuak. Hala ere, nahiko toki ona hartu genuen. Zazpi t'erditako saioa zen. Neska kuadrila zaratsatu batzuk, neskazahar bikoteak, mutil lotsati batzuk neska zaratsatsuei kaso pixka bat egiten zietenak, senar-emazteak eta atzekaldean, bikoteak, argia noiz itzaliko zain...

Ez dut kontatuko "Ryan-en alaba". Ez luke grazirik izango. Ez dakit zer dioten kritikoek. Behingoz, ez zait ajolarik. Huachafitak maite zuen, Huachafitak ikusia zuen Donostian, hala ere ikustera ekarri ninduen Errenteriara.

Ikusi zuen, nahiz eta berandu etorritako andre tximosa batek pantaila erdia estali. Ikusi zuen, nahiz eta aldameneko

gizona zurrunga bizian hasi. Ikusi zuen, nahiz eta haren andrearekin haserretu, Huachafitak "A hacer la siesta a casa" esan zuelako.

Berriro ikusi zuen, eta berriro ere, negar egin zuen. Nik, orduan, laztandu eta musukatu nuen. Irlandan gertatutako historia harek bazeukan bere xarma. Oso intelektualtzat jotzen genituen geure buruak, bainan ez ginen, ez, hotz geratzen adulterio haren aurrean, bertatik jarraitzen genituen txibato haien kontuak... Ordurarte erromatar guztiek Mesalaren aurpegia izan zuten eran, bakero guztiak John Waynen planta zuten eran, baguenen beste irudi bat fitxerorako: Mitchumek jartzen dituen begi apal, goxo eta tristeak senar majo guztiek jarri beharko lituzteke.

Reinatik atera ginen. Neska zaratsutsuak erdi negarrez ibiliak zirela nabarmentzen zen. Mutilak ixilik zihozten. Berandu etorritako tximosak denak agurtzen zituen. Gure aldameneko bikotea erritan abiatu zen. Andreak gizonari berarekin ezin zela zinera etorri, gizonak andreak berarekin ezin zela bizi, ordea... Huachafita eta biok, fuerte-fuerte helduta, tarteka elkarri musua emanez, bainan txintik esan gabe, "trole" a hartu genuen. Musu gehiago eta agur esan genion elkarri.

Gau hartan, hamaikak aldera, gure etxeko beheko trinbea jo zuten. Huachafita zen. Ez zetorren liburuak aldatzera, baizik eta



esatera bere Fakultateko batzuk "erori" egin zirela eta egun batzuetarako alde egin behar zuela.

Ez zen oso asunto grabea gertatu, hartan behintzat, ez. Ez zidan gehiegi hontatu, ez zen komeni eta. Oso progreak ginen. Berarengandik gero eta urrunago sentitzen hasia nintzen. Egun batean, elkarrizketa luze eta nahasi baten ondoren, Huachafitak agur esan zidan. Ez ziren ahaztuzeko Reina Zinean emandako musu goxoak. Ondoren jakin nuen edarien promozioak herriz herri egiten zuen bitartean, panfletoak banatzen zituela. Ondoren jakin nuen beste nobio "iraultzaileagoa" izan zuela...

Azkar, azkar, burutazioetan ibili naiz eta laister ordua da. Kale erdian hitzaldiko arduraduna urduri. Agurtzean lasaitzen da. Garagardoak, beroak eta Huachafitaren oroimenak txotxolo xamarra jarri ote nauten beldur naiz. Dena den, askotan eman dut hitzaldi hau eta ez naiz trabatzen, normalean behintzat. Antolatzaileei zein desberdina den aretoa komentatzen diet. Huachafita aipatzen dut pasadan eta "Ryan-en alaba" ere... Askok ikusia dute. Oso polita. Eta garai haietan, Euskalerrian... Ai Euskalerrri nerea!

Ezagutzen omen dute zurrunga egiten zuen gizona. Andreak astindu egiten omen zuen. Tarteka komentario bat matxista xamarra...

– Ez dago jadanik zinerik, Huachafita –pentsatzen dut nik.



Badagoela beste bat aipatzen dute. Lehengo parrokiak zine haiek ere ateratzen dira: pelikulak mozten zituzten apaizak, apaizei laguntzen zieten zinefilo berezi xamarrek, izerdi eta pipa usaiak, bidalia gertatzea zinetik...

Aurkezpena egiten dute. Donostiarra, biologoa, USAn egindako masterra... Hasi egingo naiz. Andre tximosa bat esertzen da aurrekaldean eta atzekoak okertu egin behar du zerbait ikusteko. Diapositibak, transparentziak... Bukatzean nago... Norbait sartzen da bainan ez dut ikusten. Elkarrizketa. Batez, propagandan herriaren izena behar bezala ez dela jarri dio. Ni ixilik, arduradunak erantzuten dio. Ai Euskalerrri nerea ezin zaitut maite! Baina nun biziko naiz zuegandik aparte?

Besteak Administrazioak zein gutxi egiten duen hondakinen trataerari buruz komentatzen du, nere iritzia eskatuz. Baietz, arrazoi duela, diot. Rioko akordioak, konpromezuak... Herriko administrazioa berea defenditzen dute. Hitzaldi guztietan bezala, nahiz eta lotura haundirik izan ez, Lemoizi buruzko iritzia eskatzen dit potolo batek.

– Ameriketara egona zarenez, igual ados zaude... Eta hori herria zapaltzeko... Lemoizi buruz, hobeto esanda, energia nuklearraren arrikkuei buruz. Chernobyl, azkeneko pausoak... Kontra nagoela entzutean lasaitzen da, arrazoiei jaramon gutxi eginez. Azkenean, gerta ohi den bezala ere, batez hitzaldia aprobetxatzen du Udaletxekoei bere auzoan dagoen arazo bati buruz kargua hartzeko. Halako batetan, arduradunak, gorri-gorri eginda, amaitutzat ematen du saioa.

Urduri dago. Nik lasaitu egiten dut. Beti gertatzen da horrela. Kontatzen diot behin, Barakaldon, erotutako bat etorri zela hitzaldira eta Jesukristo zela esanez, zoriondu egin ninduela. Nik orduan, formak galdu gabe, eskerrak eman nizkiola eta diapositibak jartzen jarraitu nuela. Parra egiten du.

– Ba al da hemen norbait, zine honetan, "Ryan-en alaba" ikusi zuena? –galdetzen du ahots batek atzetik.

Hau bai gogorra! Barakaldon gertatutakoa baino gogorragoa. Besarkatzen dut eta pelikuletan bezala dela pentsatzen dut.

Bainan pelikula hau ez da bukatuko Casablanca bezala, Huachafita. Nahiz eta nik gero eta Ernest Borgnineren antza gehiago izan, Robert Mitchumena egin beharra dago.

– Berandu sartu naiz –dio Huachafitak.

Hau pelikuletan bezala da!

